




Euskadiko ibaien ikerketa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eginkizunetako bat da. "EAEko ibaietako uren kalitatea eta ingurunearen egoera zaintzeko sarea" sare hidrografikoaren egoera ezagutzeko eratu da, horretarako, analisi fisiko-kimiko eta biologiko batzuk eginez.



Gure ibaien egoera

ZAINKETA-SARE horren helburu nagusia ibaietako uren kalitatearen bilakaera eta ibaien ingurumen-egoera artatzea da.

Hauxe lor daiteke zaintza horri esker: oraingo eta etorkizuneko arazketa eta saneamendu ekintzen eragina egiaztatzea; ekosistema hidrikoak jasan litzakeen erasoei antzematea; ingurumen arloan gauzatu behar den politika finkatzea, eta abar.

Lan metodoa honetan datza: laginketa-estazioen ingurumen egoera sailkatu eta kartografiatzean. Laginketetan, alde batetik, aldagai fisiko-kimiko eta mikrobiologiko batzuk aztertzen dira, eta bestetik, ibilguan bizi diren komunitate biologikoak.

Uren kalitatea adierazle kimikoek (analisi fisiko-kimikoek eta mikrobiologikoek zehazten dituzte) eta adierazle biologikoek (ingurumen egoerak, ertzeko basoaren egoerak, arrainen egoerak eta beste zenbait) zehazten dute.

Jarduera honetan, ibai baten ingurumen egoera iker-tuko duzue. Horretarako, aztertuko duzuen zona aukeratu eta berari buruzko informazioa batu beharko duzue.

Datu bilketa errazteko, Eusko Jaurlaritzak ingurumenari buruz daukan web gunearen helbidea emango dizuegu ondoren; bertan, EAEko ibaietako uren kalitatea eta ingurunearen zaintzeko sareak biltzen dituen datuak kontsultatu ahal dituzue.



Behaketa fitxa

Fitxa honetako galderak interesatzen zaizkigun datuak ezagutzeko gida moduan erabil ditzakegu.

Datuak bildutakoan, eztabaida antolatu ahal dugu ikastaldean, ibaiaren ingurumen egoera zein den erabakitzeko. Ondo legoke arro bereko beste ikastetxe batekoekin harremanetan jartzea eta lan bera egin dezaten eta bildutako informazioa truka dezazuen proposatzea. Horrela, bi taldeok ikertu dituzuen ibai-tarteetan gertatzen diren arazoak eta erabil litezkeen irtenbideen berri izango duzue.

Zein da aukeratu duzuen tartearen egoera?

.....
.....

Non daude hurbilenerako laginketa-estazioak?

.....

Zer dira erreferentzia-estazioak? Badago baten bat zuek aukeraturako tartean?

.....
.....

Nola definitzen da uren kalitate ekologikoa?

.....
.....

eta laginketa-estazioen egoera ekologikoa?

.....
.....

Zein inpaktu jasaten du ibaiak zuen aldean?

.....
.....

Zein irtenbide proposatzen da inpaktuok zuzentzeko?


.....
.....



Web orrialdeak


Zainketa-sarea

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia




Laginketa-estazioak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/datos/mapa/pun




Kalitate ekologikoa

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/Calidad_Ecologica_c.htm



Inpaktuak eta irtenbideak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/impactos_c.htm



Ibaien egoera

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/pueblos

Erreferentzia-estazioak

www1.euskadi.net/vima_ag_vigilancia/referencia_c

Foru aldundien web guneetan argibide gehiago lor daiteke:

- web.bizkaia.net/Ingurugiro/Europako_eskakizunak/ca_cumpl.htm
- www.gipuzkoa.net/obras-hidraulicas/infor/index-e.htm
- www.alava.net/index800_c.htm